herrera

Zarata gehiegi geltokian

Herrerako Eusko Trenbidearen geltokia itxita dago azken hilebete osoan bizilagunen artean eragozpen handiak eraginez, batez ere sortzen dituzten hots eta zaratak direla eta.

Euskotren konpainiak arazoari aurre egin ahal izateko Donostiarako autobus zerbitzu berezia finkatu du Herrerako topo geltokitik gertu. Honek ez dio aurre egiten ordea, lanek sortzen duten gehiegizko zaratari.

Jose Elosegi ibilbideko altueran bi airegailu handi jarri dituzte. Airegailuek hots haundia sortzen ez badute ere, martxan jartzen dituen generadoreak izugarrizkoa ateratzen du eta inguruko bizilagunak kexu dira. Hau dela eta, Herri-Pe auzo elkartearen salaketa behar den lekuan entzun ahal izan da, baina oraingoz ezin izan da arazoa konpondu. Ea azkar konpontzen duten!

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Bi airegailu handi hauek martxan jartzen dituen generadoreak ateratzen duen zarata handiaz kexu dira Herreratarrak.

altza

Jolastokieta festetan

Aurrera jarraitzen dute aste buru honetan Jolastokieta auzunean antolatutako ekitaldiak. Gaur ostirala, hilak 13, arratsaldeko 20.30etan sardin jatea izango da, beranduago Urubi taldearekin dantzaldiari paso emateko. Eguna antzerkiarekin amaituko da Bazfer emanaldia taularatuko baitute Elisabet eta Veronica gazteek.

Larunbatean haurren eguna ospatuko da.

Jaia amaitzeko igandean Jolastokieta kultur topagunearen urtemuga ospatuko da. Goiz partean «Jolastokietako XI. kross herrikoia» ospatuko da eta arratsalderako antolatu da dantza jaialdia. Eta iluntzean karaokea eta diskotekan parte hartzeko aukera dago.



kutxa fundazioa fundación

Casa de Pakoes
1930ean sortua
Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak
Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia

MASAIA IKASTAROA
E·N·M·B·E
Ikastaroak: Kiromasaia eta kirol-masaia
Osteopatia • Oinetako erreflexiologia
Drenaia linfatikoa
96-97ko ikasturterako matrikula irekitzen da
HASIERA: URRIA
INFORMAZIOA: 320283 TFNOAN. MEDIKU ZENTROA